



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

Euskara eta hizkuntza eskubideen aurkako epaiari buruz, Adierazpen Instituzionala

Euskalgintzako eragileak alkate eta udal ordezkariekin bat eginda agertu ziren 2023ko uztailaren 13an Bilbon egin zen agerraldian.

Hain zuzen ere, Espainiako Konstituzio Auzitegiak Udal Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezetsiz emandako epaiak eragin digun kezka larriak eraman gintuen agerraldi bateratu horretara.

Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztopoa jartzea delako, helburu horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu. Bide batez esan, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzen dituzten hizkuntza-politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2 artikulua berariaz jasotzen baitu berme hori.

Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain esku hartutako Udal Legea. Era berean, azken Inkesta Soziolinguistikoak argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hori euskararen biziberritzearen aurkako ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan. Erabakimen horren defentsan kokatzen da alkate eta ordezkarien agerraldia eta Zaldibiako udalbatzak esku artean duen adierazpen hau ere.

Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Euskalgintzako eragileek kezka horren berri eman zuten joan den maiatzaren 10ean, eta herritarrei dei egin zieten azaroaren 4an oldarraldi honen aurka, baina, batik bat, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzera. Epai honen ondoren, deialdia are eta irmoago egiteko arrazoiak daude: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde.

Zaldibian, 2023ko uztailaren 20an

EH Bildu eta EAJ-PNVko ordezkariak aho batez onartutako adierazpena